

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2022ko abenduaren 22a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 12/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 13/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatean.

- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 12/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 12/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 252.701 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 12/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 252.701 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 13/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 13/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.005.594 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 13/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.005.594 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Mikel Iriondo Iturrioz abokatuak eta Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez arkitektoek idatzi dute, EKOLUR Ingurumen Aholkularitza SLLren eta Juan Ignacio Cortes Arzallusen laguntzarekin, ingurumen-ebaluazioaren eta delineaioaren alorretan, hurrenez hurren.

Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren memorian hau nabarmendu daiteke:

I.- SARRERA.

1.- Plan Orokorraren xedea.

Indarrean dagoen Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2012ko maiatzaren 8ko Foru Ebazpenaren bidez onartu zen behin betiko. Geroago, 2012ko urriaren 4ko ebazpenaren bidez, testu bategina onartu zen.

Plan horrek eta hura aldatzeko eta/edo garatzeko sustatutako eta onartutako gainerako hirigintza-plan eta -dokumentuek zehazten dute Orion indarrean dagoen hirigintza-erregimena.

Ondoren (2013ko uztailaren 24an), Orioko Udalak Plan Orokorra berrikustea erabaki zuen, udalerriari planeamendu orokorreko tresna egokia emateko, gaur egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzuteko, eta, aldi berean, indarrean dauden baldintzetara egokitzeko: lurraldeko baldintzak, hirigintzakoak, ingurumenekoak, juridikoak, sozioekonomikoak, kulturalak...

Testuinguru horretan, Plan Orokorraren helburua da Orioko etorkizuneko hirigintza-planak bete behar dituen irizpideak eta proposamenak zehaztea, onartu eta hurrengo 15 urteetan gutxi gorabehera, eta erantzuna ematea, ahal den neurrian, gaur egungo eta etorkizuneko beharrei eta eskaerei, alor hauei dagokienez: hiri-antolamendua, ingurune urbanoen birsorkuntza eta berrikuntza, jarduera ekonomikoak, natura-ingurunea, ekipamenduak, espazio libreak, mugikortasuna eta garraioa, hiri-zerbitzuak eta abar.

Hori guztia atal hauen ebaluaziotik abiatuta egin da:

- Ingurumenaren, klimaren, hizkuntzaren, generoaren eta abarren gaineko eraginak.
- Ebaluazio horretatik sortutako irizpide eta proposamenak.
- Prebentziorako, konpentsaziorako eta abarrerako proposatutako neurri osagarri egokiak.

Proiektu hau, zehazki, Plan Orokorraren hasierako onarpenaren dokumentuarekin bat dator eta 5. atalean aipatzen den berrikuspen-prozesuaren markoan egin da.

2.- Plan Orokorraren esparrua.

Orioko udalerriaren eremua da Plan Orokor honen xedea. Zarautz-Azpeitia (Urola - Kosta) guneko funtzionalaren barruan dago udalerria, eta 993 hektarea inguruko azalera du.

Horri dagokionez, hau esan behar da: nahiz eta 2012ko HAPOk azalera hori 9.930.784 m²-koa dela zehazten duen, une honetan plano digitalean egindako udal mugapearen neurketa zehatzenak adierazten du azalera hori 9.931.121 m² dela. Bi plan horietako mugapena berdina dela kontuan hartuta, azalera baten eta bestearen arteko 337 m²-ko aldeak ez du inolako garrantzirik.

3.- Plan Orokorra prestatzeko lege-esparrua.

Plan Orokor hau gaur egun indarrean dauden mota, maila eta izaera desberdineko legezeko xedapenen, jarraibideen, planen eta proiektuen multzo konplexuaren esparruan egiten da. Hauek dira lege-esparru hori osatzen duten xedapen eta dokumentu nagusiak:

- A.- Lurralde- eta hirigintza-legeria
- B.- Beste arlo batzuetan indarrean dagoen legeria
- C.- Indarrean dauden lurraldea antolatze tresnak
- D.- Bestelako planak, dokumentuak eta lanak

4.- Plan Orokorra berrikusteko beharra.

Adierazitakoa kontuan hartuta, indarrean dagoen Orioko Plan Okorrak 2012. urtean hartu zuen indarra.

Nolanahi ere, haren edukia eta funtsezko proposamenak urte batzuk lehenago zehaztu ziren, zehazki, aurreko Planeamenduko Arau Subsidiarioak (2006-2007) prestatzeko garaian (Arau Subsidiario haien lanketa 2003an hasi zen, Aurrerapena formulatu eta tramitatu zenean).

Hori dela eta, 2012ko Plan Orokorraren helburuak eta proposamenak ehuneko handi batean bete eta gauzatu dira. Horregatik, beharrezkoa da Oriok Plan Orokor berri bat izatea, gaur egungo eta etorkizuneko hirigintza-beharrei erantzuteko gai izango dena, eta gaur egungo araudira, sozioekonomiara eta abarretara egokitua.

5.- Plan Orokorra berrikusteko prozesua.

Plan Orokorra berrikusteko prozesua luzea eta konplexua da, bai edukia zehazteari dagokionez, bai tramitazioari dagokionez. Orain arte egindako lanak eta egiteko daudenak kontuan hartuta, prozesu horretan lan fase hauek bereiz daitezke:

A.- Lehenengo fasea. Informazioa eta diagnostikoa. Gaur egungo egoeraren azterketa.

Lehen fase hau dagoeneko gauzatu da. Helburua Orioko egoera ezagutu eta diagnostikatzea izan zen, Plan Orokor berriarekin eta haren proposamenekin zerikusia duten alderdi guztietan.

Emaitza dokumentu honetan jasotzen da: «Informazioa eta diagnostikoa. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra» (2014ko ekainean eta irailean egina).

B.- Bigarren fasea. Aurrerapena prestatu eta tramitatzea. Plan Orokorra egiteko helburu eta irizpide orokorrak onartzea.

2014ko abenduaren 23ko ebazpenaren bidez, Orioko Udalak erabaki zuen jendaurrean jartzea bi hilabetez indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren Aurrerapena, urte hartako irailean egina.

Tramite horretan hamasei (16) iradokizun aurkeztu ziren. Eta tramite horretatik kanpo, beste hamahiru (13) idazki, hainbat esparrutarako antolamendu-proposamenekin: Dikea, Kofradia, eta abar.

Eta Udalak onartutako Herritarren Partaidetzarako Programan ezarritakoarekin bat etorritz, Aurrerapenaren proposamenak jendaurrean jarri eta/edo eztabaidatu ziren herritarrekin, helburu horrekin sustatutako 5 jardunaldi/saiotan, eta prozesu hartan iradokizun gehiago egin ziren.

Aurkeztutako iradokizun guztiak 2015eko maiatzean eta uztailean, 2017ko abenduan eta 2018ko urtarrilean eta otsailean egindako txostenetan aztertu ziren.

Ondoren, 2018ko ekaineko ebazpenaren bidez, Udalak HAPO berria egiteko helburu eta irizpide orokorrak onartu zituen. Memoria honen 1. eranskinean helburu eta irizpide horien kopia bat dago.

Gainera, Aurrerapena eta haren tramitazioa osatzeko, Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zen bi alditan. Lehenbizikoa, 2015eko uztailean, eta bigarrena, 2017ko abenduan. Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak dagozkion irismen-agiriak eman zituen, hurrenez hurren, 2015eko azaroan eta 2018ko apirilean.

Era berean, 2015eko abenduan, aurrerapen horren hizkuntza-eraginaren ebaluazio-txostena egin zen.

Bestalde, 2019-2020 urteetan, lan-prozesu bati ekin zitzaion (inkestak, bilerak, lantegiak...), Plan Orokorrean genero-ikuspegia txertatzeko.

C.- Hirugarren fasea. Plan Orokor berriaren hasierako onarpenaren agiria prestatu eta tramitatzea.

Fase horretan gaude. Agiri honen edukia bat dator indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoarekin eta Udalak 2018ko ekaineko ebazpenaren bidez onartutako helburu eta irizpideekin.

Besteak beste, dagokion Ingurumen Azterketa Estrategikoa barne hartzen du.

Agiri-multzoa jendaurrean jarri beharko da eta herritarren parte-hartze prozesua egin, behin-behineko eta behin betikoz onartu baino lehen. Onartu aurretik edo ondoren, fase honetan egin beharreko txostenak eskatu beharko dituzte administrazioek, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoarekin bat.

D.- Laugarren fasea. Behin-behineko onarpena.

Hasierako onarpenaren ondoren, eta alegazioak, administrazioen txostenak eta abar baloratu eta egoki iritzitako egokitzapenak egin ondoren, Udalak behin-behineko onarpena eman beharko dio Plan Orokorriari.

E.- Bosgarren fasea. Behin betiko onarpena.

Behin-behineko onarpenaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu beharko du Plan Orokorra. Betiere, aldez aurretik, besteak beste, honako hauek egin beharko dira:

- Administrazio sektorialen aginduzko txostenak (Itsasertzetako zuzendaritza, telekomunikazioak, URA...) eskatu, jaso eta baloratzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen organoari Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eskatzea eta hark ematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari txostena eskatzea eta hark ematea.

6.- Plan Orokorren eduki formala.

Plan honen edukia bat dator indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritakoarekin (2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 103. artikulua, 62.ari buruzkoa, eta abar). Premiazko Neurrien 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua), eta bertan planteatutako helburuak eta proposamenak lortzeko beharrezko aurreikuspenak jasotzen ditu. Zehazki, aurreikuspen horiek dokumentu hauetan jasotzen dira:

1.- Memoria.

- 1.1. Hirigintza-antolamendua eta haren exekuzioa justifikatzeko memoria.
- 1.2. Memoria, justifikatzen duena gehieneko eta gutxieneko hirigintza-eraikigarritasuna arautzen duten estandarrak betetzen direla eta Plan Orokorra indarrean dagoen lurralde-plangintzara egokitzen dela.
- 1.3. Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena – Ingurumen Azterketa Estrategikoa.
- 1.4. Generoaren eraginaren ebaluazioa.
- 1.5. Hizkuntza-eraginaren ebaluazioa.
2. Hirigintzako arauak.
 - 2.1. Hirigintzako Arau Orokorrak.
 - 2.2. Hirigintza esparruetako hirigintza-arau partikularrak.
 - 2.3. Katalogoa.
3. Azterketa ekonomikoa. Jarduketa-programa.
 - 3.1. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana.
 - 3.2. Jasagarritasun ekonomikoaren memoria.
 - 3.3. Jarduketa-programa.
4. Plano orokorrak.
5. Laburpen exekutiboa.

Dokumentu horien eta haien proposamenen informazio-, interpretazio- eta/edo arau-izaera, bai eta horien arau-maila ere, bat dator indarrean dagoen legerian haientzat ezarritakoarekin (2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 54., 56. eta abar artikulua) eta proiektu honetako «2.2. Hirigintzako Arau Orokorrak» dokumentuarekin.

Aurrekoez gain, berrikuspen-prozesu honen aurreko faseetan landutako dokumentuak ere (5. atalean aipatutakoak) gehitu behar dira: Informazio eta Diagnosi dokumentua, Aurrerapena, txostenak, eta abar.

Horien artean sartzen dira iradokizunak baloratzeko txostenak, txosten sektorialak eta abar, plana tramitatzen den bitartean aurkeztutakoak, eta, zehazki, Aurrerapena egin eta jendaurrean jarri ondoren. Txosten horietan irizpideak azaltzen dira, iradokizun eta

txosten horiek baloratzeko, onartzeko edo ezesteko, bai eta horien ondoriozko proposamenak Planean sartzeko ere.

Dokumentazio hori guztia Plan honen espedientearen eta edukiaren parte da. Hori dela eta, ez da beharrezkoa edukia behin eta berriz errepikatzea eta/edo berariaz sartzea; beraz, oro har, dokumentu horietan azaldutakora jotzen dugu.

II.- PLAN OROKORRAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.

Aurrerapenean adierazitakoa eta Udalak 2018ko ekainean berretsitakoa kontuan hartuta (1. eranskinean data horretako udal-ebazpena jasotzen da), Plan Orokorraren helburua da Oriok 15 urterako izango duen etorkizuna arautzeko hirigintza-proposamenak zehaztea, besteak beste, helburu eta irizpide hauei jarraituz:

1.- Ingurumenaren aldetik iraunkorra den udalerri bat antolatzea.

Helburu hori lortzeak, besteak beste, honako hauek justifikatzen ditu:

- Lurzoru naturala babestea, ingurumen, paisaia, nekazaritza, basogintza eta abarren ezaugarri eta baldintzatzaileen arabera, kontuan hartuz, besteak beste, eremu urbanoaren eta inguruko lurzoru naturalaren arteko elkarreragina.

Horretarako, egin beharrekoa da:

- Natur eta landa-lurzoruaren hirigintza-araubidea zehaztea, haren balioak babesteko eta sustatzeko behar diren baldintzetan.
- Plan Orokorraren proposamenak indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoetara egokitzea (hirigintza-legeria; lurralde-plangintza: LAG, Urola Kostako Lurralde Plan Partziala, Nekazaritza eta Basogintzako LPS...).
- Intereseko espazioak eta espezieak babestea: landaredia, nekazaritza-balio handiko lurzoruak...
- Lehendik dauden nekazaritzako ustategiak zaintzea eta lurzoru urbanizaezinen hirigintzako araubidea zehaztea, beste berri batzuekin osatzeko moduan.
- Baliabide urria denez, lurzoru naturalaren kontsumoa murriztea, honela:
 - Helburu urbanotarako lurzoru berrien kontsumoa minimizatzea.
 - Garapen urbano berrietan dentsitate egokiak aurreikustea.
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea, eguneroko joan-etorrietan autoaren mendekotasuna eta/edo erabilera murrizteko beharrezko neurriei jarraipena

emanez eta garraio publikoko sistemen eta motorrik gabeko mugikortasun-moduen alde eginez. Hori lortzeak justifikatzen du:

- Ingurune urbano bat antolatzea, ahalik eta joan-etorri gutxien egiteko, inguruan etxebizitzak, ekoizpen-lanetarako espazioak, hurbileko ekipamendu eta zerbitzuak edukitzeko: merkataritza, ekipamenduak, espazio libreak, eta abar.
- Bidexka urbanoak indartzea, behar bezalako jarraitutasuna duten eta sarean antolatuta dauden oinezkoentzako eta txirrindularientzako sareak sortuz.
- Elementu mekanikoak ezartzeko neurriekin jarraitzea, irisgarritasun bertikaleko arazoei erantzuteko.
- Eremu publikoa hobetzea, oinezkoen eta garraio publikoaren mesedetan.
- Egoiliarrentzako aparkaleku-eskaerei erantzutea.
- Baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea eta ingurumen-kalitatea hobetzea, batez ere, aireari, zaratari, energiari, urari eta biodibertsitateari dagokienez, jarraibide hauen bidez: uraren zikloari eta horrek ingurumen-iraunkortasunean dituen ondorioei erantzutea, berdeguneak diseinatuz, espazio libreetan gainazal iragazkorrak eta zoladura porotsuak erabiliz, ur grisak berrerabiliz eta abar; eraikitako espazioaren energia-mendekotasuna murriztea, aurreztuz eta energia-eraginkortasuna sustatuz; airearen kalitatea hobetzea; kutsadura akustikoa murriztea; eta abar.

Hori lortzeak justifikatzen du:

- Urbanizatzeko eta eraikitzeko jarraibide iraunkorrak zehaztea.
- Eraikinak birgaitzeko pizgarriak ematea, energia-eraginkortasuneko irizpideen arabera.
- Kalitate akustikoa hobetzeko ekintza-planak sustatzea.
- Zerbitzu-azpiegiturak optimizatzea.
- Zuhaitzak landatzea sustatzea.

2.- Ingurune urbano konplexu, osasungarri, inklusibo eta segurua antolatzea, etengabe berritzen eta birsortzen ari dena.

Plan honen beste helburu estrategikoetako bat da Orioko ingurune urbanoaren zati bat finkatzea eta baliabideen erabilera eraginkorra izatea, ingurune degradatuak leheneratzea, eraikitakoari balioa ematea eta gaur egungo eta etorkizuneko eskakizunetara egokitzea.

Birsorkuntza-helburu horrek eragina du udalerriko hainbat alderditan, eta helburu hauek ditu: kaltetutako ingurune urbanoak birkalifikatzea; haien erakargarritasuna eta kalitatea sustatzea, baita inklusibitatea eta segurtasuna ere; kasu bakoitzean egokiak diren erabilerak zehaztea; etxebizitzan, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen, espazio libreen eta abarren detektatutako eskaerei erantzutea; etab. Eta hori guztia irizpide hauen arabera:

- Gaur egungo ingurune urbanoan dauden izaera urbanoko eskariei erantzutea, natur ingurunera ahalik eta gutxien zabalduz.
- Dagoenaren erabilera optimizatzea, udalerriko lurzoru eta eraikinen aukerak maximizatuz.
- Eremu eta ingurune degradatuak (Mutiozabal, Dike, Arozena, Leunda altzariak, etab.) biziberritu eta birkalifikatzea, irisgarritasun unibertsala sustatzeko, segurtasuna bermatzeko, hiriko oztopoak kentzeko, eraikinak zaharberritu eta erabiltzeko eta abarretarako egokiak diren ekimenekin osatuta.
- Ingurune urbanoan hainbat erabilera-mota (etxebizitzak, merkataritza, bestelako ekonomia-jarduerak, ekipamenduak...) ezartzea sustatzeko beharrezko neurriak zehaztea, horien jasangarritasuna sustatuz, hurbileko zerbitzuak sustatuz, mugikortasuna murriztuz, gizarte-dinamismoa aberastuz eta, aldi berean, ingurune hori erakargarriagoa, osasungarriagoa eta atseginagoa eginez.
- Ingurune urbanoaren hirigintza-araubidea zehaztea, genero-ikuspegiarekin bat datozen baldintzetan, eta haren integragarritasuna eta segurtasuna sustatzea.
- Itsasadarraren izaera integratzailea indartzea, udalerriko ardatz egituratzaile gisa.

Helburu hori lortzeak justifikatzen du gaur egun hondatuta dauden eta/edo ibai ertzeko pasealekuak jarraitutasunik ez duen itsasadarraren aurrealdeko zatiak eraberritzea (Mutiozabal, Kofradia, Dike...), eta, horrekin batera, bertan dauden eraikinak (Arozena...) birgaitzea eta berrerabiltzea.

3.- Sozialki orekatua den udalerri baten antolamendua.

Dimentsio soziala jasangarritasunaren zutabeetako bat da, osotasunean hartuta. Pertsona guztien zerbitzura dagoen udalerri bat antolatu behar da, inklusiboa, osasungarria, orekatua, irisgarria (osotasunera, ekipamenduetara, espazio publikoetara, etxebizitzetara...). Hori lortzeak, besteak beste, honako hauek justifikatzen ditu:

- Udalerriko ingurune urbano degradatu horiek eraberritzea, osotasuna biziberritzearekin batera, bertan bizi eta lan egiten duten pertsonengandik hurbil dagoen ingurune urbanoa sortuz. Ingurune urbano horretan, haien

oinarrizko behar eta eskaerei erantzungo zaie, modu erraz, iraunkor eta seguruan: hezkuntza, osasuna, kultura, aisia, lana, merkataritza... eta ez dute udalerritik kanpora joan beharrik izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

- Oriok eskatzen duen dotazio-sarea antolatzea (espazio libreak, ekipamenduak, etab.), udalerrian bizi direnen eta lan egiten dutenen gaur egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzuteko, eta baita beste helburu batzuetarako erabiltzen dutenei ere erantzuteko: aisia, oporrak...
- Etxebizitza-eskariari erantzuna ematea, horretarako beharrezkoak diren etxebizitzak ordenatuz, etxebizitza babestuen edo etxebizitza librean erregimenarekin lotuta dauden neurriekin osatuta, etxebizitza eskuragarrien eskaerari erantzun ahal izateko moduan.
- Jarduera ekonomikoen arloan dagoen eskaerari erantzutea. Horrek, besteak beste, justifikatzen du Aizperro eremuan indarrean dagoen planeamenduak horretarako aurreikusitako garapena finkatzea.
- Hirigintza-proposamenak genero-ikuspegia txertatuz zehaztea (emakumeak eta talde berezi eta/edo ahulak, adinaren, arrazaren eta abarren arabera), haien segurtasuna sustatzearekin batera, herrian bizi diren edo lan egiten duten pertsonen zerbitzura egongo den udalerria sortzeko, ahulena barne (emakumeak, haurrak, mugikortasun murriztuko pertsonak...).
- Irisgarritasun unibertsala sustatzea udalerrri osoan, bi neurri mota hauen bidez, besteak beste:
 - Neurri orokorrak eta zeharkakoak, udalerrriaren garapen urbanoaren ereduarekin eta, zehazkiago, haren antolamenduarekin lotutakoak, zenbait irizpideri jarraiki: elkarrekin bateragarriak diren hainbat erabilera-mota egotea; hurbileko ingurune urbano bat edo distantzia laburrekoa eratzea (etxebizitza, merkataritza, espazio libreak, ekipamenduak...); pertsona guztientzat irisgarria den udalerrri bat antolatzea, beharrezko segurtasun- eta autonomia-baldintzetan; eta abar.
 - Udalerriko oztopo arkitektonikoak pixkanaka murrizteari eta/edo ezabatzeari lotutako neurri espezifikoak, irisgarritasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapenetan horri buruz ezarritako baldintzak betez.
- Intereseko kultura-ondarea identifikatzea, ondare hori zaintzeko eta balioa emateko neurri egokiak zehaztearekin batera, haren balioekin bat datorren erabilera barne.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea, bai Plan Orokorra prestatzeko prozesuan, bai hura garatu eta gauzatzean.

Espedientearen parte da, baita ere, ingurumen-azterketa estrategikoa, eta hori ere jendaurrean jarri da berrogeita bost (45) egun balioduneko epean, lurraldea antolatzeke planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.2 artikuluan eta 27.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Udal-idazkariak 2022ko abenduaren 20an txostena egin zuen gaiari buruz eta bertan erabaki-proposamen hau egiten dio udalbatzarrari:

LEHENA. Lehen onarpena ematea Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari.

BIGARRENA. Jendaurrean jartzea, 2023ko martxoaren 31 arte, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten esparruen mugaketaren laburpen exekutiboa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohiko egunkarietan eta Udalaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratuta, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Ingurumen-azterketa estrategikoa ere jendaurrean egongo da epe horretan, interesdunek aztertzeke eta alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, eragindako administrazio publikoei eta interesatuei kontsulta egitea, aukera izan dezaten 2023ko martxoaren 31ra arte, HAPOa eta ingurumen-azterketa estrategikoa aztertu eta oharrrak aurkezteko.

Tramite horiek bukatutakoan, espedientearen kopia osoa igorriko zaio ingurumen-organo eskudunari, aginduzko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

HIRUGARRENA. Era guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea, aurreikusitako determinazio berriek indarrean dagoen araubide urbanistikoa aldatzea badakarte. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez.

LAUGARRENA. Lehen onarpenaren berri ematea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

Udal-arkitektoak 2020ko abenduaren 20an emandako txostenak hauek jasotzen ditu ondorio gisa:

13.- Ondorioak

Dokumentazioari Dagokionez

Aurkeztutako lehen onarpen dokumentua osatua dela irizten da eta legeak ezarritako Dokumentuak barne hartzen dituela eta beraz, osatua dagoela irizten da.

Lehen onarpena emateko prozedurari dagokionez:

46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen betetzen dela esan daiteke.

Parte hartze prozedurari dagokionez, eginiko prozedurak 2020an Dekretua onartu aurretikoak dira eta beraz, parte hartzea prozesua eta honen edukiak ez dira Dekretuan ezarritakoaren baitan argitaratu.

Lehen onarpena Formalki eman aurretik, itsaertzeko Zerbitzuko Txostena, Abiazio Zibilekoa eta Telekomunikazioetakoa eskatu beharko dira

Udalaz gairikoa Araudiaren betekizunari dagokionez:

Proposatutako lehen onarpen dokumentuak udalaz gairikoa Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Foru Aldundiko arauak betetzen dituela uste dugu. Edozein kasutan, hori horrela dela egiaztatuko da lehen onarpena eman ondoren, jendaurreko epean erakunde eskumendunei eskatuko zaizkien txostenen bidez. Zerbait falta edo okerrik balego, behin behineko onarpenaren aurretik zuzendu beharko da.

Balorazio orokorra:

Aurrekarietan ikusi den moduan, Plan orokorraren berrikusketa prozedura luzea eta korapilatsua izan da, eremu guztietan aukera desberdinak aztertu dira.

Lurzoru hiritar ezineko eremu txiki bat soilik hiritartzea proposatu da, hain zuzen erriberak eremuaren luzapena mugikortasuna hobetzeko. Gaintzeko hirigintza garapenak, jada antropizatutako lurzoru hiritarrean kokatzen dira(Dike. Mutiozabal, Arozena...) Horrek, Arauen eragina asko murrizten du ingurumenaren eta jasangarritasunaren ikuspuntutik. Oro har, hiri lurretako garapenetan dentsifikazioa lehenetsi da, garapen konpaktuagoak sortuz, lur gehiagoren antropizazioa ekiditeko eta degradatutako eremu hauek lehengoratu eta hobetzeko neurriak proposatuz. Hau positiboa dela eta egokia dela uste dugu. Hala ere, Dike, Arozena eta Mutiozabalgo eremuetan proposatutako eraikigarritasunak gehiegizkoak direla uste dugu. Kontutan hartu behar da, itsas zorpeko eremuetan ezin dela eraiki eta beraz, eremu horietan aurreikusitako eraikigarritasunak orokorrean azaltzen diren batzuetan bestekoak baino askoz dentsiboagoak direla eta beraz, altuera handiegia eta ibaiarekiko pantaila handiegia sortzen direla.

Planean aurreikusitako garapen guztietan, uholde arriskua, ondarean preserbazioa eta itsas jabari eta itsas zorpeko eremuetako muga eta baldintzak kontutan hartu dira, hala nola klima aldaketara egokitzeko neurriak edota energia jasangarritasuna bermatzekoak. Proposatutako garapenak ekonomikoki bideragarriak direla eta udalarentzat jasangarriak direla aztertu eta egiaztatu da.

Era berean, eremu hauen garapenetan kontutan hartu beharko dira aztertu diren inpaktuetan aurreikusitako neurri zuzentzaileak

Txostenean jasotako azterketa kontutan hartuta, Plan Orokorren berrikusketari lehen onarpena emateko Aldeko iritzia azaltzen dut, goiko atalean zehaztutako nabardurarekin..

14.- Administrazio ezberdinei eskatu beharreko txosten ezberdinak

14.1.- Hasierako onarpena eman aurretik:

1- Itsasertzeko Zerbitzua(Costas)

2- Abiazio zibila(Aviación Civil)

3- Telekomunikazioei buruzko txostena(Ministerio de Industria, Comercio y Turismo)

14.2.- Hasierako onarpena eta gero:

Estatuko erakundeetara:

1.-Iparraldeko konfederazio Hidrografikoa(Confederación Hidrográfica del Norte-Orokorra- Errekurto hidriko nahikoak daudela egiaztatzeke)

2.-Ogasuna

Euskal autonomia Erkidegoko erakundeetara:

1.- URA (Orokorra- Errekurto hidrikoak)

2.-Kultura eta hizkuntza politika saila:

- Ondareko zuzendaritza nagusia

- Euskarako zuzendaritza nagusia

3.- Euskal Trenbide Sarea (ETS)

4.- Emakunde

5.- Ekonomia eta Ogasunako saila

6.- Garapen ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumen saila:

6.1.- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

6.2.- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.

6.3.- *Portuetako zuzendaritza nagusia*

6.4.- *Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.*

6.5.- *IHOBE.*

6.6.- *Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.*

7.- *Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.*

8.- *Lurralde antolakuntza, etxebizitza eta garraio saila*

8.1.- *Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.*

8.2.- *Etxebizitza zuzendaritza*

8.3.- *Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.*

9.- *Hezkuntza saila*

10.- *Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde ordezkartza.*

Gipuzkoako Foru Aldundia- Gipuzkoako erakundeetara

1.- *Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.*

2.- *Garapen ekonomikoa, turismo eta landa lurreko sailera:*

2.1.- *Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.*

2.2.- *Mendietako eta Natura Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.*

2.3.- *Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza*

3.- *Mugikortasuna, Lurralde antolakuntza saila:*

3.1.- *Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.*

3.2.- *Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.*

4.- *Ogasun saila*

5.- *Kultura zuzendaritza nagusia*

6.- *Gipuzkoako Urak- Gipuzkoako Ur kontsortzioa*

Bestelako erakundeetara jakinarazpenak:

Irismen-dokumentuan ezartzen den bezala, ukitutako administrazio publikotzat eta pertsona interesduntzat joko dira, irismen agiria egiteko xedez Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak kontsultatu dituen administrazio eta erakunde publikoak eta Udalak HAPO izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen gainerako antolakunde eta interesdunak. Beraz, gutxienez, honako erakunde hauei kontsultatu beharko zaie:

- *Nekazaritza sindikatuak:*
 - *EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).*
 - *ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).*
- *Udalak:*
 - *Aiako Udala*
 - *Donostiako Udala.*
 - *Usurbilgo Udala.*
- *Urkome.*
- *Urola Kostako Udal Elkartea (UKUE)*
- *Elkarte ekologistak:*
 - *Aranzadi Zientzia Elkartea.*
 - *Eguzki talde ekologista.*
 - *Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.*
 - *Itsas Enara ornitologia elkartea.*
 - *Haritzalde Naturzaleen Elkartea*
 - *Herrio Natur Taldea*
 - *Itsas enara Ornitologia Elkartea*
- *Orioko elkarteak eta eskolak:*
 - *Talai Mendi Elkartea*
 - *Topagune Berdea*

- *Kalapie Hiriko txirrindularien elkarte*
- *Orioko Arrantzaleen kofradia.*
- *Orioko Herri Ikastola*
- *Zaragueta Herri Eskola*
- *Proposamenak aurkeztutako talde eta norbanako guztiei lehen onarpenaren berri emango zaie.*

HAPOri eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko dira, gutxienez 45 egunez. Aldi berean, organo sustatzaileak kontsulta egin beharko die eragindako administrazioei eta interesdunei.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Lurraldearen Antolamenduko Planak eta Hirigintza Antolamenduko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan xedatutakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza-batzordeak 2022ko abenduaren 22an diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietta (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari. Plan Orokorra Mikel Iriondo Iturrioz abokatuak eta Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez arkitektoek idatzi dute, EKOLUR Ingurumen Aholkularitza SLLren eta Juan Ignacio Cortes Arzallusen laguntzarekin, ingurumen-ebaluazioaren eta delineaioaren alorretan, hurrenez hurren.

2.- JENDAURREAN JARTZEA, 2023ko martxoaren 31 arte, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten esparruen mugaketaren laburpen exekutiboa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohiko egunkarietan eta Udalaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratuta, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Ingurumen-azterketa estrategikoa ere jendaurrean egongo da epe horretan, interesdunek aztertze eta alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, eragindako administrazio publikoei eta interesatuei kontsulta egitea, aukera izan dezaten 2023ko martxoaren 31ra arte, HAPOa eta ingurumen-azterketa estrategikoa aztertu eta oharrak aurkezteko.

Tramite horiek bukatutakoan, espedientearen kopia osoa igorriko zaio ingurumen-organo eskudunari, aginduzko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

3.- ETETEA era guztietako onarpen, baimen eta lizentziak, aurreikusitako determinazio berriek indarrean dagoen araubide urbanistikoa aldatzea badakarte. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez.

4.- JAKINARAZTEA lehen onarpen hau sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, Hirigintza-batzordeko burua den aldetik, eta hau adierazten du:

- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesua luzea eta konplexua izan da, bai edukia zehazteari dagokionez, bai tramitazioari dagokionez. Bost lan-fase bereizietatik, lehenengo hirurak azken hamabost urteetan egin dira: fase bat bost urteko; eta fase horietako bakoitza udal-agintaldi bakoitzean egin da: 2011-2015, 2015-2019 eta 2019-2023, hurrenez hurren.
- Udalbatzar honetan, besteak beste, JENDAURREAN JARRI DIRA, 2023ko martxoaren 31 arte, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta laburpen exekutibo bat, indarrean dagoen ordenamendua zein eremutan mugatzen den zehazten duena, interesatuek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten; eta horrek Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukia aberastea dakar.
- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukian determinazio hauek jaso dira, besteak beste: Eusko Jaurlaritzak onartutako estandar urbanistikoaren dekretu berria; etxebizitza turistikoak arautu dira; Orioko udal-hilerria handitzeko obrak ahalbidetu dira hirigintza aldetik; eta azterlanak egin dira generoaren eta euskararen ikuspegitik.
- Bestalde, eremu gatazkatsu hauek arautu dira hirigintzaren aldetik: Kofradia, Dike, Mutiozabal eta Sotoak; hirigintza-esparru horietan hainbat aukera aztertu eta aurreikusi dira. Eremu urbanistiko etenduntzat hartu dira, alde batetik, Dike-Kofradiakoa eta, bestetik, Mutiozabal-Sotoak eremua.
- Lan urbanistikorako tresna bat da, urte luzez gauzatu eta garatuko dena.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du oraingo honetan ezin izan dela aho batezko adostasunik lortu udalbatzarra osatzen duten talde politiko guztien artean, plan orokor honi lehen onarpena emateko, bere

talde politikoari kezka sortu baitzaizkio Dikeko azpieremuaren antolamendu urbanistikoari buruz eta Toki-Alai eta Arozena eremu urbanistikoei buruz. Kezka horiek direla eta, bere talde politikoak Dike azpieremuaren antolamendu urbanistikorako zenbait aukera xehetasunez aztertzea eskatu zuen eta eskari hori ez zen kontuan hartu. Hori dela eta, bere talde politikoak abstentzio-botoa eman behar izan zuen aipatutako eremu urbanistiko etendun horiek onartzeko.

Hala ere, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzeari begira, adierazten du bere talde politikoari gehiegizkoa iruditzen zaiola, baita ere, «Mutiozabal-Sotoak» eremu urbanistiko etendunerako aurreikusitako eraikigarritasun urbanistikoa.

Nolanahi ere, EAJ talde politikoaren izenean, eskerrak ematen dizkio Ainara Munduate zinegotziari, Hirigintza-batzordearen presidentea den aldetik, egindako lanagatik, batzorde horrek berariazko bilkura ugari egin dituelako Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren onarpena diktaminatzeko.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOeren izenean, eta hau adierazten du:

- Azkenean, zinegotzi gisa zortzi urte eman ondoren, lortu da Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari lehen onarpena ematea. 2012tik 2022ra bitartean, kontu asko aldatu dira, eta eremu urbanistiko berriak sortu dira. Gaur egun, hirigintza integratzaile baten aurrean gaude.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenak gutxienez 512 etxebizitza berri aurreikusten ditu Orioko udalerrirako eta, beraz, Ana Priede ez dator bat EAJ talde politikoaren iritziarekin; hau da, ez du uste Dike-Kofradia eta Mutiozabal-Sotoak eremu etendunetan eraikigarritasun urbanistiko gehiegizkoa dagoenik. Orioko herrian arazoak daude alokairu sozialerako eta etxebizitza tasatuak sustatzeko eta, beraz, etxebizitza-arloko jarduera publikoak sustatu nahi badira, handitu egin behar da Orioko hainbat eremutako eraikigarritasun urbanistikoa; esate baterako, Dike-Kofradia eta Mutiozabal-Sotoak eremu etendunetan.
- Espazio libreei dagokienez, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean 7.000 biztanleko aurreikuspena egiten da Orioko herrirako, eta biztanleko 15 metro koadroko ratioa ezartzen da. Horrek hirukoiztu egiten du biztanleko 5 metro koadroko gutxienekoa.
- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra plan adostu bat izan da eta irekita dago hobetzeko, jendaurreko informazio-tramitearen bidez. Hori guztia dela eta, eskerrak ematen dizkio Ainara Munduate zinegotziari, Hirigintza-batzordearen buru gisa egindako lanagatik.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta hau adierazten du:

- Emandako botoa azaltzeko txanda honetan parte hartzen duen azkena denez, ez daukala ezer askorik gehitzeko; baina autokritika egin nahi duela, zeren eta ORAIN talde politikoa udal-agintaldi honetan parte hartzen ari bada, arrazoietakoa bat hau dela: Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu gabe geratu zela aurreko agintaldian.
- Pena ematen diola EAJ talde politikoak emandako abstentzio-botoak, batez ere kontuan hartuta plan orokorraren dokumentua oso ondo landuta eta adostua dagoela, eta konponbideak ematen dituela Dike-Kofradia eta Mutiozabal-Sotoak eremu etendunetan.
- Barkamena eskatzen dio Orioko herriari, ORAIN talde politikoak ere baduelako erantzukizuna Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren tramitazioan izandako atzerapenean.

Segidan, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta hau adierazten du:

- Ez dago ados EAJk osoko bilkura honetan emandako iritziarekin; alegia, Dike-Kofradia eta Mutiozabal-Sotoak eremu etendunen eraikigarritasun urbanistikoa gehiegizkoa dela esatearekin. Eta gogorarazten du Toki-Alai eremu urbanistikoa bi horiek baino eraikigarritasun urbanistiko handiagoa duela. Adierazten du, baita ere, Dike-Kofradia eta Mutiozabal-Sotoak eremu etendunetan ez direla aurreikusten «dorreak» edo pantaila arkitektonikoak, eta lurraren okupazioa ez dela inbaditzailea.
- Bestalde, eskerrak ematen dizkio Ainara Munduate zinegotziari, Hirigintza-batzordearen buru gisa egindako lanagatik.

Aipatua izan delako, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta berretsi egiten du udalbatzar honetan esandakoa. Horrekin batera, adierazten du bere talde politikoa (EAJ) bat datorrela Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren printzipio eta helburuekin.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza berriro, eta adierazten du ez duela nahi Orioko herritarrek «kopla» horrekin geratzea: alegia, arazoa eraikigarritasun urbanistikoan dagoela.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza berriro, eta adierazten du berak ere ez duela nahi Orioko herritarrek EAJ etxebizitza tasatuen aurka dagoela pentsatzea eta «kopla» horrekin geratzea.

Amaia Gozategi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza, eta adierazten du ez dagoela ados Anuska Esnal alkateak adierazitakoarekin: alegia, Toki-Alai eremuaren eraikigarritasun urbanistikoa EAJ talde politikoaren herentzia dela esatearekin.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du 2019-2023 udal-agintaldi honetan errespetu osoz eta neurriz hitz egin duela EAJ talde politikoak aurreko udal-agintaldian egindakoarekin.

Hala ere, adierazten du ez duela EAJrengandik enpatia bera jaso bueltan, duela gutxi Lourdes Salsamendi zinegotziak 2016ko akta bat erakutsi baitzion.

4.-ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan.

Udalbatzarra bukatutzat eman aurretik, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta Eguberri ona eta osasuna opa die oriotar guztiei.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,